


ENPRESEN KONFIANTZA

Enpresen baikortasuna azken hiru urteetako maximoetan dago

ENPRESEN KONFIANTZAREN INDIZEA. EUSKADI

2025ko 2. HIRUHILEKOA
58,0




Laboral Kutxak argitaratutako inkestaren arabera, EAEko enpresak baikorrangoak dira aurtengo bigarren hiruhilekoari begira. Indizea lehen hiruhilekoko 53,6tik gaur egungo 58,0ra igo da, 2022aren hasieratik ikusten ez zen balioa baita, eremu hedakorrean duen posizioa sendotuz. EAEko enpresen datu hori Eurogunekoa (50,2 urtarrian) eta Estatu osokoa (54,0 urrian) baino altuagoa da.

Oro har, hobekuntza hautematen da ia atal guztietan. Prezioei buruzko igurikimenetan, inkestatutako 404 enpresen %30,7k soilik aurreikusten du igoera. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta beherakada izan den arren, indizea 62,7koa da, eta posizio hedakor erosoan mantentzen da. Halaber, fakturazioarekin lotutako erantzunak nabarmen hobetu dira, 60,9 izatera iritsi baitira.


FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea




JARDUERA IGURIKIMENAK

Indizea




ESKARIEN IGURIKIMENAK

Indizea




PREZIOEN IGURIKIMENAK

Indizea



ERRENTAGARRITASUN IGURIKIMENAK

Indizea




Konfiantza indizea osatzen duten gainerako atalek ere antzeko bilakaera izan zuten, eta guztiak eremu hedakorrean kokatu ziren, hau da, 50eko balioaren gainetik. Errentagarritasunaren bilakaerari buruzko igurikimenen hazkundea nabarmendu zen bereziki, sei urtean lehen aldiz gainditu baitzuen uzkurdua eremua.

Gainerako atalei dagokienez (jarduera, eskaerak, langileak eta inbertsioa), igurikimenak hobetu egin ziren guztietan, aurtengo lehen hiru hilabeteekin alderatuta. Horrek baieztatzen du EAEko enpresak une ekonomiko onean daudela eta datozen hilabetei begira ikuspegi positiboa dutela.


LANGILE IGURIKIMENAK

Indizea



INBERTSIO IGURIKIMENAK

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**